


# agenda Ataria

negua

invierno



CEA





CEA

Egutegiko orriak bezalaxe, urtaroak igaroz doaz eta horren adierazgarri dira naturak eskaintzen dizkigun paisaiak. Jarduera-programazio honekin, neguan ere naturaz gozatzera gonbidatzen zaituztegu.

Hiritar guztiei zuzenduriko Atariaren eskaintzak aukera anitz eskaintzen ditu. Ez dira falta familientzako jarduerak eta mundu-egunen ospakizunen inguruko ekitaldiak, esaterako, Hezeguneen Mundu Egunaren ingurukoak. Egun horretan hitzaldiak, baso-igela jautsiak ikusteko bisitak eta udalerriko hezeguneetatik ibilbideak egingo dira. Basoen Mundu Egunerako ere hainbat ekimen antolatu ditugu, hala nola, adoptatu zuhaitz bat kanpaina, mehatxaturiko espezieei buruzko hitzaldia eta lilipa loratzen ikusteko irteera.

Horiek dira datozen hilei begira Atarian antolatuko diren jardueretariko batzuk. Horien bitartez, pertsona orok, hirikoek nahiz bisitariak, gure natura-ondarearen altxorretariko bat ezagutuko (beharbada) eta baloratuko (ziurrenik) dute, eta, zailtzarrik gabe, natura-ondare horrekin gozatu dute.

Aipu famatu bat ekarriz, hiri baten zibilizazioa biodibertsitateagatik duen errespetuaren arabera neurtzen da. Puntu horretan, denok dakigun legez, bide onetik goaz. Hori dela eta, 2012ko Europako Hiriburua Berdea izatea ahalbidetu duen hiritar guztien inplikazioa eskertu eta aitortu nahi nuke. Jarrai dezagun bide horretatik. Eskerrik asko guztioi.

Como las hojas del calendario, las estaciones van pasando y nada nos lo demuestra mejor que los paisajes que la naturaleza nos ofrece. Disfrutar de la naturaleza, también en invierno, es la invitación que planteamos en esta programación de actividades.

El ofrecimiento de Ataria, a toda la ciudadanía, pasa por un amplio abanico de posibilidades, en el que no faltarán actividades familiares y eventos relacionados con la celebración de días mundiales, como el Día Mundial de los Humedales, en el que realizaremos conferencias, visitas para observar la rana ágil y recorridos por los humedales del municipio. También celebraremos el día Forestal Mundial con la campaña adopta un árbol, una charla sobre especies amenazadas y una salida para ver la floración de los narcisos.

Son tan sólo algunos ejemplos de las acciones que se han organizado en Ataria de cara a los próximos meses. A través de ellas, sin duda, cualquier persona, residente o visitante, puede disfrutar, quizás descubrir y seguro valorar, una de las mayores joyas de nuestro patrimonio natural.

Si parafraseamos una cita célebre, “la civilización de una ciudad se mide por su respeto a la biodiversidad”, a nadie se le escapa que vamos por el buen camino. Porque no puedo por menos que seguir agradeciendo y reconociendo la implicación de toda la ciudadanía en algo que ha hecho posible que seamos Capital Verde Europea 2012. Sigamos en la misma línea. Gracias a todos y todas.

Alba Cañadas



5

Erakusketak  
Exposiciones



8

Tailerrak - Ikastaroak  
Talleres - Cursos



11

Hitzaldiak  
Conferencias



19

Familiantzako jarduerak  
Actividades familiares



23

Natur ibilbideak  
Recorridos naturalísticos



# Ataria

## Salburuko Hezeguneen Interpretazio Zentroa

Biosferaren pasealekua, 4  
P.K. 01013  
Tel.: (34) 945 25 47 59

## Centro de Interpretación de los Humedales de Salburua

Paseo de la Biosfera, 4  
C.P. 01013  
Tel.: (34) 945 25 47 59

### ORDUTEGIAK

Neguko ordutegia. Egunero.  
(azaroaren 1etik martxoaren 31ra)  
Goizean: 10:00etatik 14:00etara.  
Arratsaldean: 16:00etatik 19:00etara.

### HORARIOS

Horario de invierno. Todos los días.  
(del 1 de noviembre al 31 de marzo)  
Mañanas: de 10:00 a 14:00 h.  
Tardes: de 16:00 a 19:00 h.

Udako ordutegia. Egunero.  
(apirilaren 1etik urriaren 31ra)  
Goizean: 10:00etatik 14:00etara.  
Arratsaldean: 16:00etatik 20:00etara.

Horario de verano. Todos los días.  
(del 1 de abril al 31 de octubre)  
Mañanas: de 10:00 a 14:00 h.  
Tardes: de 16:00 a 20:00 h.

### Izenematea (\*)

**Zozketarako izenematea:**  
abenduak 1 – 20  
Udal webgunea, Ataria, IGI  
eta Gizarte Etxeak

**Sorteo:** abenduak 21  
Zozketaren emaitza CEAn, 010-en eta gizarte  
etxeetako Herritarren Arretarako Bulegoetan  
kontsultatu ahal izango da

**Inscripción:** abenduak 21 – 28

**Bete gabeko plazak:**  
abenduak 29tik aurrera

### Inscripciones (\*)

**Inscripciones para el sorteo:**  
1 – 20 de diciembre  
Web municipal, Ataria, CEA  
y Centros Cívicos

**Sorteo:** 21 de diciembre  
El resultado del sorteo se podrá consultar  
en el CEA, el 010 y las Oficinas de Atención  
Ciudadana de los centros cívicos

**Inscripción:** 21 – 28 de diciembre

**Plazas libres:**  
a partir del 29 de diciembre



Brais Palmás

## *Ecós de ruta*

### **Brais Palmás**

*“Irten nintzenezan, banekien errepideak nire nortasuna moldatuko zuela, baina inoiz ez nuen imajinatu hain eragin handia izango zuenik”.*

Galiziatik Adriatikoko kostara, Kantabriar mendikatea, Pirinioak eta Alpeak igaroz, Brais Palmásék egin zuen 5.000 km baino gehiagoko ibilbidean ateratako argazkiez osaturiko erakusketa da “Ecós de ruta”.

Argazki-erakusketa horrek Mendebaldeko Europako naturagune garrantzitsuetariko batzuk dakartzkigu Atarira: leku horietako paisaiak, flora eta fauna, baita biztanleak ere. Hain zuzen, garraio-bide bakar gisa bizikleta erabili zuen bidaiari horrek ateratako argazki-bilduma da.

*“Cuando salí, sabía que la carretera moldearía mi personalidad, pero nunca imaginé que hasta un punto tan extremo”.*

“Ecós de ruta” es una exposición que reúne una serie de imágenes que Brais Palmás recogió en su recorrido de más de 5.000 km desde Galicia a la costa adriática, atravesando la Cordillera Cantábrica, los Pirineos y los Alpes.

Esta muestra fotográfica nos trae a Ataria algunos de los espacios naturales más importantes de Europa occidental: sus paisajes, su flora, su fauna y también sus gentes. Se trata de una colección de imágenes tomadas por este viajero que utilizó la bicicleta como único medio de transporte.

**Azaroak 4 - Urtarrilak 9**  
**4 Noviembre - 9 Enero**  
**ATARIA**



## Natura dokumentatzen

### Documentando la naturaleza

Norber Fuente

Natura, lurraldea, paisaia eta batez ere fauna biziki maite ditu egileak. 20 urte baino gehiago dira hegaztiak behatzen hasi zela, eta berak aitortu duenez, natura behatu, aztertu eta zaintzeko duen gogoia gero eta handiagoa da.

Norberrek bere lanaren lagina ekarriko du erakusketara: landakoadernoak, *in situ* hartutako apunteak, lan batzuen zirriborroak eta gure inguruko faunaren ilustrazioak.

El autor es un enamorado de la naturaleza, del territorio, del paisaje y fundamentalmente de la fauna. Lleva más de 20 años dedicado a la observación de aves y, como él mismo reconoce, su entusiasmo por observar, estudiar y mimar la naturaleza no ha hecho más que crecer.

En esta exposición, Norber nos muestra una selección de su obra: sus cuadernos de campo, los apuntes tomados *in situ*, los bocetos de algunos de sus trabajos y las ilustraciones de la fauna de nuestro entorno.

**Urtarrilak 20 - Otsailak 20**  
**20 Enero - 20 Febrero**  
**ATARIA**



Antonio Guillén

## Uretako bizitza ezkutua

### *La vida oculta del agua*

**Antonio Guillén**

Ura izeneko proiektua errealitate bilakatutako ametsa da. Dimentsio berrira eta bizitza, forma eta kolore askotako unibertso fantastikora eramaten gaituen mikroskopia-argiaren leiho txikitik so egin eta egunero gauza berriak aurkitzeko ametsa.

Logroñoeko Batalla de Clavijo institutuko ikasleen lanaren eta keme-naren emaitza da erakusketa. Antonio Guillén irakaslearen zuzendaritzapean eta Proyecto Agua izeneko egitasmoaren barruan, ikasleek hiru urte daramatzate gainontzekook ikusi ohi ez dugunari argazkiak ateratzen.

Erakusketan 50 irudi izango dira ikusgai. Horrela, mikra gutxiko organismoak metro bateko argazkietan handituta ikusiko ditu bisitariak, xehetasun guztiakin.

Proyecto agua es un sueño hecho realidad. El sueño de descubrir cosas nuevas cada día asomándonos a la pequeña ventana de la luz de un microscopio que nos transporta a una nueva dimensión y nos lleva a un universo fantástico de vida, formas y colores.

La exposición es fruto del trabajo y entusiasmo de alumnos del instituto logroñés Batalla de Clavijo, que con el nombre de Proyecto Agua y dirigidos por el profesor Antonio Guillén, llevan tres años fotografiando lo que los demás no solemos ver.

La muestra consta de 50 imágenes que permiten al visitante observar con detalle unos organismos de tan sólo unas micras aumentados a fotografías de un metro.

**Martxoak 3 - Maiatzak 1**

**3 Marzo - 1 Mayo**

**ATARIA ETA OLARIZUKO ETXALDEA**

**ATARIA Y CASA DE LA DEHESA DE OLARIZU**



Alfonso Roldán

## Mikrougaztunak egagropilen analisiaren bidez identifikatzeko tailerra

### *Taller de identificación de micromamíferos mediante el análisis de egagrópilas*

#### Naturesfera

Zer dira mikrougaztunak? Eta egagropilak? Hegazti harrapari iberiarren egagropilak aztertzeo teknikak ezagutu nahi al dituzu? Hori da, hain zuzen, ikastaroaren helburua: gure inguruan bizi diren mikrougaztunen aniztasuna eta garrantzia erakustea herritarrei, eta horretarako, zenbait gaueko hegaztik sortzen dituzten egagropilen bidez mikrougaztunak aztertzeo moduaren berri izango dute partaideek.

Horrela, hontzaren egagropiletan aurkitutako marraskari txikien hezur-hondarrak identifikatuko dituzte, erreferentziazko bildumaren laguntzarekin eta sailkapena egiteko beharrezkoa den dokumentazio bibliografikoarekin.

¿Qué son los micromamíferos? ¿Y las egagrópilas? ¿Quién no ha estado interesado en iniciarse en las técnicas de estudio de las egagrópilas de las rapaces ibéricas? Este es el objetivo del curso: acercar a los ciudadanos la diversidad de micromamíferos que habitan nuestro entorno más cercano, su importancia y el modo de estudio a través del análisis de las egagrópilas que generan algunas rapaces nocturnas.

Para ello, se identificarán los restos óseos de los pequeños roedores encontrados en las egagrópilas de lechuza, ayudados de una colección de referencia y la documentación bibliográfica necesaria para su clasificación.

**Urtarrilak 29 - 30 Enero ATARIA**

**Iraupena:** 4 ordu

**Ordutegia:** 10:00 – 14:00

**Norentzat:** ugaztunen mundua interes-garritzat duten guztientzat

**Plaza-kopurua:** 40 lagun (20 talde bakoitzean)

**Hizkuntza:** gaztelania/euskara

**Izenematea:** ikusi 4. orrialdea (\*)

**Número de horas:** 4h.

**Horario:** 10:00 – 14:00

**Dirigido a:** personas interesadas en el mundo de los mamíferos

**Nº plazas:** 40 (20 por grupo)

**Idioma:** castellano/euskera

**Inscripción:** ver página 4 (\*)





Alfonso Roldán

## Natura-argazkien edizio digitala

### *Edición digital de fotografía de Naturaleza*

**Javier Sánchez**

Natura-argazkilaritza espezialitate interesgarria eta deigarria da, zientzia, artea eta teknika uztartzen dituena. Argazkilaritza eskarmentua duten pertsoneri zuzenduta dago ikastaroa, irudi digitalen inguruko ezagutzan, haien tratamenduan eta edizioan sakondu nahi dutenei, alegia.

Egitarrak lan digitalaren prozesu osoa hartu du kontuan: irudiak ordenagailuan deskargatzen diren unetik hasi eta editatzeko edo inprimatzeko ekintzak burutu artekoa. Alde praktikoari teorikoari baino garrantzi handiagoa emango zaionez, partaideek ordenagailu eramangarria izan beharko dute eta tratatu beharreko irudiak eramango dituzte.

La fotografía de naturaleza es una especialidad muy interesante y llamativa en la que se mezclan por igual ciencia, arte y técnica. El curso está dirigido a personas con nociones en fotografía que deseen ahondar en el conocimiento, tratamiento y edición de sus imágenes digitales.

El programa cubre todo el flujo de trabajo digital, desde la descarga de las imágenes en el ordenador hasta las operaciones de edición e impresión que se puedan hacer. Será más práctico que teórico, por lo que es necesario que los alumnos dispongan de un ordenador portátil y lleven sus propias imágenes a tratar.

## Otsailak 5 - 6 Febrero ATARIA

**Iraupena:** 11 ordu

**Ordutegia:**

larunbata, 10:00 – 14:00 eta 16:00 – 19:00  
igandea, 10:00 – 14:00

**Norentzat:** natura-argazkilaritza eskarmentua dutenentzat

**Plaza-kopurua:** 20 lagun

**Hizkuntza:** gaztelania

**Izenematea:** ikusi 4. orrialdea (\*)

**Número de horas:** 11h.

**Horario:**

sábado, 10:00 – 14:00 y 16:00 – 19:00  
domingo, 10:00 – 14:00

**Dirigido a:** personas iniciadas en el mundo de la fotografía de naturaleza

**Nº plazas:** 20

**Idioma:** castellano

**Inscripción:** ver página 4 (\*)



Quintas

## Hegaztien kantuak Itsuentzako jarduera

### *Los cantos de las aves* *Actividad para invidentes*

**ONCE - SEO/BirdLife Euskadi - CEA**

Itsuei eta ikusmen-urritasuna duten pertsoneri zuzendutako jarduera. Esperientziaren bidez, ezagutzak bi norabide egiten ditu: kanpoaldetik belarrira eta belarritik natura aurkitzen duen partaidearen irudimenera. Tailerrean, hegaztiekin egiten dituzten soinua motak azalduko zaizkie partaideei, eta hegazti arruntenen kantuak bereizten ikasiko dute.

Actividad destinada a personas ciegas y con visión reducida. La experiencia busca que el conocimiento viaje en dos sentidos: del campo al oído y del oído a la imaginación del participante para que consiga describir la naturaleza. Durante el taller se darán nociones sobre los distintos tipos de sonidos que emiten las aves y se aprenderá a reconocer los cantos de las especies más comunes.



**Martxoak 12 Marzo ATARIA**

**Ordutegia:** 10:00 – 14:00

**Norentzat:** itsuentzat eta ikusmen-urritasuna dutenentzat

**Plaza-kopurua:** 20 lagun

**Hizkuntza:** gaztelania/euskara

**Izenematea:** ONCE

**Horario:** 10:00 – 14:00

**Dirigido a:** personas ciegas y con visión reducida

**Nº plazas:** 20

**Idioma:** castellano/euskera

**Inscripción:** ONCE



Alfonso Roldán

## Gaueko hegazti harraparien arteko elkarre- raginak. Habitat-aldaketen ondorioak

### *Interacciones entre rapaces nocturnas. Consecuencias de los cambios del hábitat*

**Dr. Iñigo Zuberogoitia Dk.**

*Estudios Medioambientales Icarus*

“Intraguild predation (IGP)” baliabide berberak erabiltzen dituzten espezieen arteko harrapakaritza da, muturreko lehia. Lehiakideetako batek harrapakaritzaren ondorioz hiltzeko arriskua duela kontuan hartuta, lehia hutsak baino eragin handiagoa du presio selektiboan.

IGP delakoa nabarmena da urubien eta mozoloen artean. Izan ere, lehenengoek murrizketa ekologikoak eragiten dituzte bigarrenen populazioetan. Azken bi hamarkadetan habitataren egituraren aldaketak antzeman dira, eta horrek eragina izan lezake IGParen tamainan eta ondorioetan. Horrenbestez, gaueko hegazti harraparien espezie batzuen gainbeheraren arrazoietako bat izan liteke.

La “intraguild predation (IGP)” se define como la depredación entre especies que utilizan los mismos recursos y resulta una forma extrema de competición. El riesgo de muerte por depredación de uno de los competidores en manos del otro muestra una mayor influencia en la presión selectiva que la mera competición.

La IGP resulta más evidente entre los cárabos y los mochuelos, provocando los primeros una serie de restricciones ecológicas a las poblaciones de los segundos. A lo largo de estas dos décadas se han detectado cambios en la estructura del hábitat que pueden interferir en la magnitud y efecto de la IGP y, por lo tanto, podría ser una de las respuestas a las incógnitas planteadas sobre el declive de ciertas especies de rapaces nocturnas.



**Urtarrilak 20 Enero ATARIA**

**Ordua:** 19:00

**Norentzat:** jende guztiarentzat

**Plaza-kopurua:** doako sarrera lekuak bete arte

**Hizkuntza:** gaztelania

**Hora:** 19:00

**Dirigido a:** público en general

**Nº plazas:** entrada libre hasta completar aforo

**Idioma:** castellano

Alfonso Roldán

## Bidaia naturalistei buruzko hitzaldiak

### *Charlas de viajes naturalistas*

#### SEO/BirdLife Euskadi

Ornitologia eta bidaia naturalistak ardatz dituzten hitzaldien zikloak aurrera jarraitzen du Atarian. Hainbat herrialdetara bidaiatuko dugu, naturalisten eskutik landare- eta fauna-altxorak ezagutzeko. Naturalista horiek eurek egindako argazki-erreportajeak erakutsiko dizkigute, eta gure bidaiak aukeratzeko edo prestatzen laguntzeko informazio praktikoa eskainiko digute.

Hitzaldiak hilabeteko programazioan sartuko dira, abentura gogoia eta mentalitate irekia duen edozein bidaiarik, bere bidaiaren berri eman nahi duen orok, esperientzia hori aprobeitza dezan.

Ataria continúa con su ciclo de charlas articuladas a través de un eje temático central: la ornitología y los viajes naturalísticos. Viajaremos a varios países para descubrir tesoros naturales de flora y fauna con naturalistas que nos mostrarán sus reportajes fotográficos y facilitarán la información práctica necesaria para ayudarnos a preparar o elegir nuestras futuras escapadas.

Las conferencias se incorporan dentro de la programación mensual para que cualquier viajero con espíritu aventurero y abierto de mente, que quiera exponer su viaje, pueda beneficiarse de esta experiencia.



**Urtarrilak 27 Enero**  
**Otsailak 17 Febrero**  
**Martxoak 10 Marzo**  
**ATARIA**

**Ordua:** 19:00

**Norentzat:** jende guztiaentzat

**Plaza-kopurua:** doako sarrera lekuak bete arte

**Hizkuntza:** gaztelania/euskara

**Hora:** 19:00

**Dirigido a:** público en general

**Nº Plazas:** entrada libre hasta completar aforo

**Idioma:** castellano/euskera



Secundino Muñoz

## Hitzaldia Hezeguneen Nazioarteko Egunean

### *Conferencia por el Día Mundial de los Humedales*

**Alejandro del Moral**

**Uraren eta Mantxako Hezeguneen Interpretazio  
eta Dokumentazio Zentroaren zuzendaria**

***Director del Centro de Interpretación y Documentación del Agua  
y los Humedales Manchegos***

Otsailaren 2a egun seinalatua da zonalde hezeen inguruko gaietan, 1997tik Hezeguneen Nazioarteko Eguna ospatzen baita. Hezeguneei buruzko Ramsarreko Hitzarmena onartu zen data gogorarazten du: 1971ko otsailaren 2a. Egun horren harira, erakunde publikoek, GKEek eta herri-kolektiboek hainbat ekitaldi antolatzen dituzte ekosistema horien garrantziaz eta eskaintzen dituzten onurez jabe gaitzen.

2011. urtea “Basoen Nazioarteko Urtea” izendatu du Nazio Batuen Erakundeak, eta ildo horretan, Ramsarreko Hitzarmenak “Basoak ur eta hezeguneentzat” leloa aukeratu du ospakizunerako, basoek gure bizitzan duten garrantziaz hausnar dezagun.

El día 2 de febrero se ha convertido en una fecha reseñable para las zonas húmedas ya que desde 1997 se celebra el Día Mundial de los Humedales, que conmemora la fecha en que se adoptó la Convención de Ramsar sobre los mismos (2 de Febrero de 1971). Organismos públicos, ONG y colectivos ciudadanos organizan durante esta jornada distintos actos para sensibilizar sobre la importancia y los beneficios de estos ecosistemas.

Dado que 2011 ha sido declarado por Naciones Unidas “Año Internacional de los Bosques”, la Convención de Ramsar ha decidido centrar el evento bajo el lema “Bosques para agua y humedales” para animarnos a pensar en el gran lugar que ocupan los bosques en nuestras vidas.

## Otsailak 2 Febrero ATARIA

**Ordua:** 19:00

**Norentzat:** jende guztiarentzatt

**Plaza-kopurua:** doako sarrera lekuak bete arte

**Hizkuntza:** gaztelania

**Hora:** 19:00

**Dirigido a:** público en general

**Nº Plazas:** entrada libre hasta completar aforo

**Idioma:** castellano



Brian Webster

## Nekazaritza sistemak eta ingurumen onurak

### *Sistemas agrarios y beneficios ambientales*

**Luis Tirado**

**SEO/BirdLiferen Aragoiko ordezkaria**  
*Delegado de SEO/BirdLife en Aragón*

Azken urteotan, nekazaritza-arloan izandako aldaketek nekazaritza-inguruneari lotutako hegaztien populazioak murriztea ekarri dute. Landaketa intentsiboaren presioak eta nekazaritza tradizionala desagertzeak estepan eragindako mehatuaz ohartuta, behar-beharrezkoa da frogatzea Nekazaritza Politika Bateratuak (NPB) bultzatutako nekazaritza-garapena eta laguntza-neurriak bateragarriak direla nekazaritzaren garapenarekin eta ingurumenaren babesarekin. Estepetan, ekologikoki landatutako lehorreko zereala funtsezkoa da espazio horien aberastasun naturalari eusteko.

En las últimas décadas, los cambios en el mundo rural han conllevado la disminución de las poblaciones de aves ligadas a los medios agrarios. Conscientes de la amenaza a la que se ve sometida la estepa por la presión de los cultivos intensivos y la desaparición de la agricultura tradicional, es necesario demostrar cómo las medidas de acompañamiento y desarrollo rural impulsadas por la PAC son compatibles con el desarrollo de la agricultura y la conservación del medio. En las estepas, el cereal de secano cultivado de forma ecológica está siendo esencial para mantener la gran riqueza natural de estos espacios.



**Otsailak 9 Febrero ATARIA**

**Ordua:** 19:00

**Norentzat:** jende guztiarentzat

**Plaza-kopurua:** doako sarrera lekuak bete arte

**Hizkuntza:** gaztelania

**Hora:** 19:00

**Dirigido a:** público en general

**Nº plazas:** entrada libre hasta completar aforo

**Idioma:** castellano



Ramón Arambarri

## Kontserbazioa eta nekazaritza

### *Conservación y agricultura*

**Ignasi Ripoll**

**RietVell erreserbako zuzendaria**  
*Director de la reserva RietVell*

**SEO/BirdLife**

Ebro ibaiaren delta Europako hezegunerik garrantzitsuenetakoa da, baina arriskuan diren hegazti espezie askoren biziraupenari begira zonalde kritikoa da. Arrozaren landaketa, eta batez ere landaketa ekologikoa, funtsezkoa da ekosistema horretan. Izan ere, ezinbestekoa da hainbat espeziek bizirauteko, hala nola, koartzatxo karramarrozaleak, uroiloak, Audouin kaioak, koartza gorriak edota itsas enara musuzuriak.

SEO/BirdLife erakundearen 52 hektareako sailean landatzen da arroza, eta gune hori erreserba ornitologiko izateko egokitu da. Era berean, RietVell-ek alokatutako beste bi partzela txikitan ere arroza landatzen da. Sail horiek guztiak Ebro ibaiaren deltan daude.

El Delta del Ebro constituye uno de los humedales más importantes de Europa y es un área crítica para la supervivencia de muchas especies de aves amenazadas. El cultivo del arroz, y muy especialmente el cultivo ecológico, es un elemento clave en este ecosistema y de él depende la supervivencia de muchas especies como la garcilla cangrejera, el calamón, la gaviota de Audouin, la garza imperial o el fumarel cariblanco.

En una finca de 52 ha., propiedad de SEO/BirdLife y habilitada como una reserva ornitológica, y en otras dos pequeñas parcelas arrendadas por RietVell se cultiva arroz de forma ecológica. Todas ellas se localizan en el mismo Delta del Ebro.



**Otsailak 10 Febrero ATARIA**

**Ordua:** 19:00

**Norentzat:** jende guztientzat

**Plaza-kopurua:** doako sarrera lekuak bete arte

**Hizkuntza:** gaztelania

**Hora:** 19:00

**Dirigido a:** público en general

**Nº plazas:** entrada libre hasta completar aforo

**Idioma:** castellano

## Munduko paisaiak: Aljeria

### *Paisajes del mundo: Argelia*

#### Saliha Rabia

Munduko paisaiak deritzon ekimenarekin planetaren biodibertsitate izugarria hurbildu nahi diegu gasteiztarrei, munduko hainbat bazterretatik Gasteizera bitiztera etorri diren pertsonen esperientziaren eta ezagutzaren bidez.

Oraingoan Saliha Rabiak Aljeriako Herri Errepublikak Demokratikora eramango gaitu. Afrika iparraldeko lurralde zabal horren zatirik handiena basamortua da. Horregatik, kostaldetik Atlasera bitartean dagoen lur eremu estuan bizi da biztanleriaren gehiengoa. Zonalde horretan dago Aljeriako nekazaritza-lurraren zatirik handiena. Hegoalderago meseta handia dago, sakonera gutxiko laku handiekin (chott), lehortzean gatzeko lautada zabalak sortzen dituztenak. Atlasaren hegoaldean Aljeriako basamortu zabalak eta Ahaggar mendiak daude.

Paisajes del mundo es una iniciativa que pretende acercar al público vitoriano la enorme biodiversidad del planeta a través de la experiencia y los conocimientos de personas que, procedentes de diferentes rincones del mundo, residen en la actualidad en Vitoria- Gasteiz.

En esta ocasión, Saliha Rabia nos acercará a la República Democrática y Popular de Argelia, un país muy extenso situado en el norte de África. La mayor parte de este territorio está ocupado por el desierto, de ahí que la mayoría de su población se concentre en una estrecha y quebrada franja de terreno que va desde la costa hasta el Atlas. En esta zona se encuentra la mayor parte de la superficie cultivable de Argelia. Más al sur se eleva una gran meseta, caracterizada por grandes y poco profundos lagos, los chotts, que cuando se secan forman extensas llanuras saladas. Al sur del Atlas, las montañas dejan paso al extenso desierto argelino y a las montañas de Ahaggar.

**Otsailak 24 Febrero ATARIA**

**Ordua:** 19:00

**Norentzat:** jende guztiarentzat

**Plaza-kopurua:** doako sarrera lekuak bete arte

**Hizkuntza:** gaztelania

**Hora:** 19:00

**Dirigido a:** público en general

**Nº plazas:** entrada libre hasta completar aforo

**Idioma:** castellano





Quintas

## Arriskuan dauden landareak Gasteizko udalerrian

### *Flora amenazada del municipio de Vitoria-Gasteiz*

**Pedro M. Uribe-Echebarría**

“Arriskuan dauden Basa eta Itsas Animalia eta Landare Espezieen Euskal Katalogoan” azaltzen diren landareen artean Gasteizko udalerrian daudenak ezagutzeko eta haien garrantziaz jabetzeko jarduera da. Ezagutu ezazu, bertatik bertara, landareok gaur egun duten kokapena eta iraganean izan zutena, populazioaren tamaina, eta zer nolako egoeran dauden orain.

Espezie horien inguruan dagoen informazio botanikoa berraztertzeari esker, antzemandako populazioak zaintzeko, kudeatzeko eta hobetzeko neurriak proposatzeko aukera dago, eta arrisku mailaren arabera lehentasunak ezartzen dira.

Descubre y valora la importancia de las plantas incluidas en el “Catálogo Vasco de Especies Amenazadas de Fauna y Flora Silvestre y Marina” que pueblan el municipio de Vitoria-Gasteiz. Conoce, de primera mano, la distribución actual y pretérita de estas especies en el municipio, su tamaño poblacional y el estado actual de conservación.

La revisión de la información botánica existente sobre estas especies hace posible la propuesta de medidas de conservación, gestión y mejora de las poblaciones detectadas, priorizándolas en función del grado de amenaza.

## **Martxoak 16 Marzo ATARIA**

**Ordua:** 19:00

**Norentzat:** jende guztiarentzat

**Plaza-kopurua:** doako sarrera lekuak bete arte


**Hizkuntza:** gaztelania

**Hora:** 19:00

**Dirigido a:** público en general

**Nº plazas:** entrada libre hasta completar aforo

**Idioma:** castellano



Brian Webster

## Los bosques comunidades dinámicas: seguimiento de la dinámica natural en un abedular-hayedo en Urkiola

**Nere Amaia Laskurain Ayastuy**

**EHUko Landareen Biología eta Ekologia Saila**  
**Departamento de Biología Vegetal y Ecología de la UPV**

Nazio Batuen Batzar Nagusiak, 2006ko abenduaren 20an hartutako ebazpen baten bidez, Basoen Nazioarteko Urte izendatu zuen 2011. urtea. Basoak, ematen dituzten etekin ekonomikoak, soziokulturalak eta ingurumenekoak direla eta, planetaren garapen iraunkorraren parte diren kontzientzia hartzeko balio izango du ospakizun horrek. Ildo horretan, era guztietako basoen antolamendu iraunkorra, zaintza eta garapena lortzeko nazioarteko ekintzak bultzatuko dira.

Ospakizun hori oroitzeko jardueren artean hitzaldi bat dago. Bertan, Urkiolako baso autoktonoa berreskuratzeko, baso-antolamendu iraunkorra finkatzeko eta deforestazioa eta basoen andeakuntza geldiarazteko estrategia praktikoak aurkeztuko dira.

El 20 de diciembre de 2006, la Asamblea General de las Naciones Unidas aprobó la resolución por la que se declaraba 2011 Año Internacional de los Bosques. Esta celebración resultará útil para tomar mayor conciencia de que los bosques son parte integrante del desarrollo sostenible del planeta debido a los beneficios económicos, socioculturales y ambientales que proporcionan. Con este fin, se promoverá la acción internacional en pos de la ordenación sostenible, la conservación y el desarrollo de todo tipo de bosques.

Entre las actividades conmemorativas del evento figura esta conferencia que presentará las estrategias prácticas que favorecen la recuperación del bosque autóctono en Urkiola, la ordenación forestal sostenible y el retroceso de la deforestación y la degradación de los bosques.

**Martxoak 17 Marzo ATARIA**

**Ordua:** 19:00

**Norentzat:** jende guztiarentzat

**Plaza-kopurua:** doako sarrera lekuak bete arte

**Hizkuntza:** gaztelania

**Hora:** 19:00

**Dirigido a:** público en general

**Nº plazas:** entrada libre hasta completar aforo

**Idioma:** castellano



## Beltzitina

### Txontxogilo eta aktoreen antzerkia

#### *Teatro de actores y marionetas*

Beltzitina, buruko atzerapena duen neskatila eta Txuribeltz ahate txo itsusia gure historioko protagonistak dira. Bien artean konplizitate mina sortzen da, beraien buruak desberdinak ikusten dituzte, guztien errefusapena nabaritzen dute. Elkarrekin adiskidetasunaren edertasuna, laguntasuna, elkar ulertzearen eta anaitasunaren balio amaigabea aurkitzen dute. Lan erraza da eta itzaropen, askatasuna eta poesiako mundu bat aurkezten digu.

Tolerantziari kantua, parte hartzeko, hunkitzeko eta gozatzeko dibertimendu eta emozioz beteta dagoela.

Beltzitina, una niña con retraso mental y Txuribeltz, el patito feo, son los protagonistas de nuestra historia. Entre los dos nace una complicidad íntima, se reconocen diferentes, distintos, rechazados por los demás. Juntos descubren la belleza de la amistad, del apoyo mutuo, del valor infinito de la comprensión y la fraternidad. Es una obra sencilla que nos presenta un mundo de poesía, libertad y esperanza.

Un canto a la tolerancia, pleno de emoción y diversión, para disfrutar y recordar, para participar y emocionar.

## Urtarrilak 16 Enero ATARIA

Ordua: 12:00

Norentzat: 2 eta 7 urte bitarteko haurrentzat (nahi izanez gero, heldu batek lagunduta)

Plaza-kopurua: 60 lagun

Hizkuntza: euskara

Hora: 12:00

Dirigido a: niños/as de entre 2 y 7 años (pueden estar acompañados por personas adultas)

Nº plazas: 60 personas

Idioma: euskera



Ramsar

[www.ramsar.org](http://www.ramsar.org)

## 2 de febrero DÍA MUNDIAL DE LOS HUMEDALES

### Haurrentzako jarduerak Hezeguneen Nazioarteko Egunaren harira

### *Actividades infantiles por el Día Mundial de los Humedales*

Hezeguneen Nazioarteko Eguna dela eta, Atarian adin guztietako haurrentzako bi jarduera antolatu dira: batetik, burruntzi-maskara koloreztatu eta moztuko dute, eta bestetik, “Patty igela” Argentinako ipuinetako pertsonaiari buruzko komiki-tiran elkarriketak idatziko dituzte, testu egokiak pentsatu ondoren.

Jarduera horietarako kola, soka, errotulagailuak, gogoa, buru argia eta atzamar abilak besterik ez dituzu behar. Lehenengo hirurak guk jarriko ditugu, eta gai-nontzekoak, zuk zeuk.

En apoyo a las actividades por el Día Mundial de los Humedales se han preparado en Ataria dos actividades prácticas para los niños y niñas de todas las edades: una máscara de libélula para colorear y recortar, y una tira cómica para imaginar y rellenar los bocadillos de las ilustraciones con aquellos textos más acordes sobre “Patty la rana”, un personaje de cuentos argentinos.

Para completarlos sólo se necesita pegamento, cuerda, rotuladores, entusiasmo, ingenio y unos dedos hábiles. Las tres primeras las ponemos nosotros, el resto lo pones tú.

## Otsailak 5 - 6 Febrero ATARIA

**Ordutegia:** 10:00 – 14:00 eta 16:00 – 19:00

**Norentzat:** 5 urtetik gorako haurrentzat

**Plaza-kopurua:** doako sarrera lekuak bete arte

**Hizkuntza:** gaztelania/euskara

**Horario:** 10:00 – 14:00 y 16:00 – 19:00

**Dirigido a:** niños/as a partir de 5 años

**Nº plazas:** entrada libre hasta completar aforo

**Idioma:** castellano/euskera



Itzal

## Biodibertsitatearen inguruko mozorro-tailerra

### *Taller de disfraces "biodiversos"*

2011ko inauteriak direla eta, Ataria zentroak biodibertsitatearekin lotutako mozorroa egiteko aukera eskaini nahi die haurrei. Horretarako, ingurumena zaintzen duten material eta teknika errazekin mozorroak egiteko tailerra antolatu du. Mozorroen gaia biodibertsitatea izango da. Kartoizko arrautzontziak, jogurten plastikozko basoak, laranjen eta pataten sarezko zorroak, tetra-brickak, lastotxoak eta paperezko platerak ekar ditzakezu.

Anima zaitetz, egizu zure mozorroa, ondo pasa eta lagundu natura ezagutzera ematen!

Con motivo de los carnavales 2011 el centro Ataria quiere ofrecer a niños y niñas la oportunidad de realizar un disfraz "biodiverso". Para ello, se realizará un taller en el que, mediante materiales y técnicas sencillas y amables con el medio ambiente, se podrán realizar variados disfraces que tendrán en común su temática: "la biodiversidad". Puedes traer hueveras de cartón, vasos de yogures de plástico, mallas de las naranjas y patatas, tetra-brick, pajitas y platos de papel.

¡Anímate, construye tu propio disfraz, diviértete y colabora para dar a conocer la naturaleza!

## Otsailak 27 Febrero ATARIA

**Ordutegia:** 11:30 – 13:30

**Norentzat:** 2 eta 10 urte bitarteko haurrentzat (nahi izanez gero, heldu batek lagunduta)

**Plaza-kopurua:** 20 haur eta 20 heldu

**Hizkuntza:** gaztelania

**Horario:** 11:30 – 13:30

**Dirigido a:** niños/as de entre 3 y 10 años (pueden estar acompañados por personas adultas)

**Nº plazas:** 20 niños/as y 20 adultos/as

**Idioma:** castellano



Iñaki Febrero

## “Adopta ezazu zuhaitz bat eta haz zaitez berarekin” 15. kanpaina

### 15<sup>a</sup> Campaña “Adopta un árbol y crece con él”

Abenduan jaso eta neguan etxean zaindu ditugun zuhaitzak landatzera joango gara guztiok martxoaren 20an, igandean, Armentia basora.

Zuhaitz bakoitza biodibertsitate-hazia da, CO<sub>2</sub> hustubide naturala, oxigeno iturria, urari, lurzoruari eta hezetasunari eusten dien elementua. Beraz, gure onerako ari da, trukean ezer gutxi eskatuz. Egizu bat aurreko ekitaldietan parte hartu duten milaka lagunekin, lagundu Gasteiz hiri osasuntsuagoa eta naturalagoa izan dadin!

El domingo, 20 de marzo, iremos todos al Bosque de Armentia a plantar los árboles que recogimos en diciembre y que habremos cuidado en nuestras casas durante el invierno.

Cada árbol es una semilla de biodiversidad, un sumidero natural de CO<sub>2</sub>, una fuente de oxígeno y un elemento que retiene el agua, el suelo y la humedad del ambiente. En suma, un amigo que lo hace todo por nuestro bienestar a cambio de bien poco. ¡Únete a las miles de personas que ya han participado en las ediciones anteriores contribuyendo a hacer de Vitoria-Gasteiz una ciudad más sana y natural!

**Martxoak 20 Marzo**  
**BOSQUE DE ARMENTIAKO BASOA**

Ordutegia: 11:00 – 14:00

Norentzat: jende guztiarentzat

Hizkuntza: gaztelania/euskara

Horario: 11:00 – 14:00

Dirigido a: público en general

Idioma: castellano/euskara



Ramón Arambarri

## Hegazti negutarrak Salburuan

### *Las aves invernantes en Salburua*

#### SEO/BirdLife Euskadi

Salburuak balio ekologiko handia du hegaztien faunari begiratuta. Ildo horretan nabarmentzekoak dira bertako aintzira batzuetan ikusten diren uretako hegazti negutarrak. Garai honetan ahateak ikusi ohi dira, hala nola, ipar-ahatea eta buztanluzea, antzara hankagorritza, txistulari europarra, mokoabala, basahatea, zertzeta arrunta, murgilari europarra, etab. Era berean maiz ikusten dira kopezauriak, murgil handiak, txilinporta txikiak, kaio mokogorriak, kaio hankahoriak, koartza hauskarak eta koartzatxo txikiak.

Zonaldeko paisaien edertasuna ikusgarria da. Bertan bat egiten dute urak, sas-trakadiak, aintzira-landarediak edota harizti-irlak, eta ondorioz, basoko hegaztien komunitatea askotarikoa da.

Salburua tiene un alto valor ecológico en lo que respecta a su avifauna, siendo valiosas las poblaciones de aves acuáticas invernantes que pueden observarse en sus lagunas. En esta época se observan patos como los ánades friso y rabudo, ánsar común, silbón europeo, cuchara común, ánade azulón, cerceta común, porrón europeo, etc. También se ven fácilmente focha, somormujo lavanco, zampullín chico, gaviota reidora, gaviota patiamarilla, garza real y garceta común.

Cabe recordar que la zona destaca por la belleza de sus paisajes en los que se entremezclan la vistosidad de elementos como el agua, la cobertura de matorral, las masas de vegetación palustre o el bosque isla robledal, lo que permite encontrar una variada comunidad de aves forestales.



### Urtarrilak 29 Enero SALBURUA

Ordutegia: 10:00 – 14:00

Norentzat: jende guztiarentzat

Plaza-kopurua: 25 lagun

Hizkuntza: gaztelania/euskara

Izenematea: ikusi 4. orrialdea (\*)


Horario: 10:00 – 14:00

Dirigido a: público en general

Nº plazas: 25 personas

Idioma: castellano/euskera

Inscripción: ver página 4 (\*)



Ramón Arambarri

## Baso-igel jauzkaria ikusteko gaueko bisita

### *Visita nocturna para observar la rana ágil*

Jarduera bi egunetan garatuko da, eta baso-igel jauzkariak aurkitzeko aukera handitzeko gauetz izango dira bisitak, izan ere, baso-igel jauzkaria desagertzeko mehatxupearan dagoen anfibio gautarra baita. Anfibioen munduari buruzko azalpen labur baten ostean, galtza-botak, frontalak eta argi-fokuak hartu eta ibilbideari ekingo diogu. Ibilbidea gune lehorretatik eta urez estalitako guneetatik igaroko da, anuro horiek eta horien errunaldia behatzeko.

Gauak, uretako plisti-plastak eta mugimenduak sorturiko sentsazioak aparteko esperientzia bihurtzen du ibilbidea.

Actividad desarrollada durante dos días y en horario nocturno para aumentar la probabilidad de encontrar ejemplares de rana ágil, anfibio de actividad nocturna amenazado de extinción. Tras una breve explicación sobre el mundo de los anfibios, y equipados los participantes con vadeadores, frontales y focos de luz, el itinerario recorrerá tanto terreno seco como una zona cubierta de agua con el fin de observar ejemplares y puestas de este anuro.

La sensación de nocturnidad, de chapoteo y movimiento en el agua hacen de este recorrido una experiencia muy atractiva.

**Otsailak 4 - 11 Febrero ATARIA**

**Ordutegia:** 19:00 – 21:00

**Norentzat:** jende guztiarentzat

**Plaza-kopurua:** 40

**Hizkuntza:** gaztelera/ euskera

**Izenematea:** ikusi 4. orrialdea (\*)

**Horario:** 19:00 – 21:00

**Dirigido a:** público en general

**Nº plazas:** 40 personas (20 por grupo)

**Idioma:** castellano/euskera

**Inscripción:** ver página 4 (\*)





## Lilipen mundu harrigarria

### *El asombroso mundo de los narcisos*

**Pedro M. Uribe-Echebarría**

Neguaeren amaieran loratzen diren basoko lilipak (nartzisoak) ezagutzeko irteera.

Greziako mitologian Nartziso gazte ederra zen, eta neska-mutilak maitemintzen zituen bere edertasunarekin. Neska gazte horietako bat Eko zen, ninfa gaztea, Nartzisok modu krudelean arbuiatu zuena. Lur jota, Eko haitzulo batean ezkutatu zen; bertan ahitu zen, eta bere ahotsak bakarrik iraun zuen.

Mendekuaren eta fortunaren jainkosa Nemesisek Nartziso zigortu zuen: mutila iturri batean islatutako bere buruaren irudiaz maitemindu zen. Bere irudia begiratzeari ezin utzita, azkenean uretara bota zuen bere burua. Mutilaren gorputza erori zen tokian lore eder bat jaio zen, Nartzisoren izena eta edertasuna gogoratzen dituen.

Salida dirigida a conocer la mayoría de los narcisos que, en estado silvestre, florecen a finales del invierno.

En la mitología griega, Narciso era un joven de gran belleza, del que doncellas y muchachos se enamoraban a causa de su hermosura. Entre estas jóvenes estaba Eco, una joven ninfa que fue cruelmente rechazada. Para castigar a Narciso, Némesis, la diosa de la venganza y la fortuna, hizo que se enamorara de su propia imagen reflejada en una fuente. Absorto e incapaz de apartarse de su imagen, acabó arrojándose a las aguas. En el sitio donde su cuerpo cayó, creció una hermosa flor, que hizo honor al nombre y a la memoria de Narciso.

**Martxoak 13 Marzo**

**OLARIZUKO ZELAIK / CAMPAS DE OLARIZU**

**Ordutegia:** 10:00 – 14:00

**Norentzat:** jende guztiarentzat

**Plaza-kopurua:** 25 lagun

**Hizkuntza:** gaztelania/euskara

**Izenematea:** ikusi 4. orrialdea (\*)

**Horario:** 10:00 – 14:00

**Dirigido a:** público en general

**Nº plazas:** 25 personas

**Idioma:** castellano/euskera

**Inscripción:** ver página 4 (\*)

# negua / invierno




Azaroak 4 - Urtarrilak 9 - 4 Noviembre - 9 Enero - ATARIA · Erakusketak / Exposiciones  
Ecos de ruta. Brais Palmás



Urtarrilak 16 Enero · ATARIA · Familientzako jarduerak / Actividades familiares  
Beltzitina. Ixontxogilo eta aktoreen antzerkia / Teatro de actores y marionetas



Urtarrilak 20 - Otsailak 20 | 20 Enero - 20 Febrero · Ataria · Erakusketak / Exposiciones  
Natura dokumentatzen / Documentando la naturaleza. Norber Fuente



Urtarrilak 20 Enero · ATARIA · Hitzaldiak / Conferencias  
Gaueko hegazti harraparien arteko elkarreaginak. Habitat-aldaketen ondorioak. Consecuencias de los cambios del hábitat. Iñigo Zuberogoitia



Urtarrilak 27 Enero · ATARIA · Hitzaldiak / Conferencias  
Bidaia naturalistei buruzko hitzaldiak / Charlas de viajes naturalistas. SEO/BirdLife Euskadi



Urtarrilak 29 - 30 Enero · ATARIA · Tailerrak / Talleres  
Mikrougaztunak egagropilen analisiaren bidez identifikatzeko tailerra / Taller de identificación de micromamíferos mediante el análisis de egagrópiilas. Natursfera



Urtarrilak 29 Enero · SALBURUA · Natur ibilbideak / Recorridos naturalísticos  
Hegazti negutiarrak Salburuan / Las aves invernantes en Salburua. SEO/BirdLife Euskadi



Otsailak 2 Febrero · ATARIA · Hitzaldiak / Conferencias  
Hitzaldia Hezeguneen Nazioarteko Egunean / Conferencia por el Día Mundial de los Humedales. Alejandro del Moral



Otsailak 4 - 11 Febrero · ATARIA · Natur ibilbideak / Recorridos naturalísticos  
Baso igel|jauzkaria ikusteko gaueko bisita / Visita nocturna para observar la rana ágil



Otsailak 5 - 6 Febrero · ATARIA · Familientzako jarduerak / Actividades familiares  
Haurrentzako jarduerak Hezeguneen Nazioarteko Egunaren harira / Actividades infantiles por el Día Mundial de los Humedales



Otsailak 5 - 6 Febrero · ATARIA · Tailerrak / Ikastaroak - Talleres / Cursos  
Natura-argazkien edizio digitala / Edición digital de fotografía de Naturaleza. Javier Sánchez



Otsailiak 9 Febrero · ATARIA · Hitzaldiak / Conferencias  
Nekazaritza sistemak eta ingurumen onurak / Sistemas agrarios y beneficios ambientales. Luis Tirado. SEO/BirdLife



Otsailiak 10 Febrero · ATARIA · Hitzaldiak / Conferencias  
Kontserbazioa eta nekazaritza / Conservación y agricultura. Ignasi Ripoll. SEO/BirdLife



Otsailiak 17 Febrero · ATARIA · Hitzaldiak / Conferencias  
Bidaia naturalistei buruzko hitzaldiak / Charlas de viajes naturalistas. SEO/BirdLife Euskadi



Otsailiak 24 Febrero · ATARIA · Hitzaldiak / Conferencias  
Munduko paisaiak: Aljeria / Paisajes del mundo: Argelia. Salha Rabia



Otsailiak 27 Febrero · ATARIA · Familientzako jarduerak / Actividades familiares  
Biodibertsitatearen inguruko mozorro-tailerra / Taller de disfraces "biodiversos"



Martxoak 3 - Maiatzak 1 / 3 Marzo - 1 Mayo · ATARIA ETA OLARIZUKO ETXALDEA / ATARIA Y CASA DE LA DEHESA DE OLARIZU · Erakusketak / Exposiciones  
Uretako bizitza ezkutua / La vida oculta del agua. Antonio Guillén



Martxoak 10 Marzo · ATARIA · Hitzaldiak / Conferencias  
Bidaia naturalistei buruzko hitzaldiak / Charlas de viajes naturalistas. SEO/BirdLife Euskadi



Martxoak 12 - Marzo · ATARIA · Tailerrak / Ikastaroak - Talleres / Cursos  
Hegaztien kantuak itsuentzako jarduerak / Los cantos de las aves Actividad para invidentes. ONCE - SEO/BirdLife Euskadi - CEA



Martxoak 13 Marzo · OLARIZUKO ZELAIK / CAMPAS DE OLARIZU · Natur ibilbideak / Recorridos naturalísticos  
Lilipen mundu harrigarria / El asombroso mundo de los narcisos. Pedro M. Uribe-Echebarria



Martxoak 16 Marzo · ATARIA · Hitzaldiak / Conferencias  
Arriskuan dauden landareak Gasteizko udalerrian / Flora amenazada del municipio de Vitoria-Gasteiz. Pedro M. Uribe-Echebarria



Martxoak 17 Marzo · ATARIA · Hitzaldiak / Conferencias  
Los bosques comunidades dinámicas: seguimiento de la dinámica natural en un abedul-hayedo en Urkiola. Nere Amaia Laskurain Ayastuy



Martxoak 20 Marzo · BOSQUE DE ARMENTIAKO BASOA · Familientzako jarduerak / Actividades familiares  
"Adopta ezazu zuhaitz bat eta haz zaitetz berarekin" 15. kanpaina / 15º Campaña "Adopta un árbol y crece con él"

